



LABORAL Kutxaren IRUZURRAREN PREBENTZIOA

Online inbertsioetako iruzurrak.

ZERTAN DATZA?

Inbertsio-aukerei lotutako iruzur-modalitatea da, ezaugarri hauetako bat edo gehiago dituen:

- **Irabazi azkarrak** eta errentagarritasun nabarmen handikoak **agintzen dituzte**.
- **Hasierako inbertsioa txikia da** epe laburrean lortuko diren irabaziekin alderatuta.
- **Eskaintza denbora batez edo guretzat bakarrik dago eskuragarri**; horrela, pentsatu gabe joka dezagun presionatzen gaituzte.
- **Asko azpimarratzen dute arriskurik gabeko** eragiketa dela.
- Komisioen truke **senideak, lagunak edo konfiantzako pertsonak erakartzera gonbidatzen gaituzte**.
- **Terminologia konplexua erabiltzen dute eta ez dute ematen** eskaintza indartzeko **informazio gehigarririk**.

HARREMANETAN JARTZEKO MODUA

Normalean, telefono bidez jartzen dira harremanetan, dei masiboen bidez edo pertsonak online egindako bilaketen bidez alde zuzenetik aukeratuta. Prozesurik ohikoenak urrats hauek ditu:

1. Biktimak bilaketa aktiboa egiten du Interneten zenbait inbertsio-motari buruz; batik bat, kriptodiruekin lotutako inbertsioei buruz.
2. Ondoren, informazio-orrialderen batean sartu eta inprimaki bat betetzen du bere harremanetarako datuekin. Oso web erakargarriak izaten dira, eta, horietan, pertsonaia ezagunek beren esperientzia eta inbertsio onurak azaltzen dituzte.
3. Webgune horiek biktimei buruzko datuak biltzen dituzte, gero erakunde iruzurgileari saltzeko.
4. Datu-base horiek erabilia, biktimarekin lehen kontaktua egiten da, erakartze-faseari ekiteko. Dei horrek ezaugarri hauetako bat edo batzuk izaten ditu:
 - Telefono-zenbakiak ez du aurrez aurre nazionala.
 - Deitzen duenak atzerriko azentua du (batzuetan, ingelesez bakarrik hitz egiten du).
 - Brokerra dela esaten du edo deia ustezko broker bati pasatzen dio.

Ausaz deitzen badute nahiz biktimak erakutsitako interesagatik deitzen badute, ideia berberak ematen dira erakartze-hitzaldian:

- Inbertsio-enpresa legezkoa da.
- Irabazi handi, azkar eta arriskurik gabek bermatzen ditu.

HASIERAKO INBERTSIOAREN ESKAERA

Biktimaren errezeloak gaitzetzeko, inbertsio txiki bat eskatzen zaio; zenbatekoa aldakorra da, pertsonaren arrisku-profilaren eta eskuragarri duela adierazten duen kapitalaren arabera.

Azpimarratu behar da biktimak hainbat modutan eman dezakeela ustezko inbertsioak egiteko kapitala, kriptoa aktiboei buruz duen ezagutza-maila zein den.

Biktimak ez baditu ezagutzen inbertsioen inguruko eragiketak, iruzurgileek engainatu egin dezakete urrutiko mahaigaineko programa bat —eskuarki, TeamViewer edo AnyDesk— deskargatu eta ordenagailuan instalatu dezaten, eta, horrela, haren ordenagailuaren kontrola hartzeko.



LABORAL
kutxa



LABORAL Kutxaren IRUZURRAREN PREBENTZIOA

Online inbertsioetako iruzurrak.

Horrela, erakunde kriminalak kriptodiru-kontuak sortzen ditu biktimaren izenean, haren dokumentazioa, helbide elektronikoa, telefono-zenbakia, lotutako ordainbideen informazioa eta are selfie bat ere erabiltza. Ondoren, biktimaren dirua kontu horietan sartzen dute, haren ordenagailutik baina hasiera-hasieratik eurek kontrolatuta. Metodo hori da erabiliena gaur egun; izan ere, trukeetan ez dira iruzurgileen datuak jasota geratzen.

Lehen kapital-ekarpena lortutakoan, inbertsioaren jarraipena egiteko orrialde batera bideratzen dute biktima, eta, bertan, denbora errealean ikus dezake, grafikoen eta erabiltzaile-sarbide indibidualizatuen bidez, nola lortzen dituen errentagarritasun handiak. Grafiko faltsuak dira, erakundeak kontrolatzen dituenak, biktimaren konfiantza bereganatzeko eta, horrela, inbertsio handiagoak lortzeko.

INBERTSIOA FINKATZEA

Hasierako inbertsioaren etekinak erakutsi eta errentagarritasun handiagoa lortuko duela agindu ondoren, ekarpena handitzeko eskatzen zaio biktimari. Kontaktatu hori telefonoz izaten da, oro har, baina posta elektronikoz, WhatsApep ez Telegramaz ere egin daiteke.

Erakartze-fasean bildutako datuekin, iruzurrezko jardura askoz arinagoa da. Orduan, gaizkileek ahalik eta gehien ustiatzen dituzte ingeniaritza sozialeko teknikak. Gainera, kasu askotan, konfiantzako loturak sortzen dituzte biktimarekin, informazio pertsonala lortzeko eta, horrela, jardura kriminala luzatzeko edo etorkizuneko maulak diseinatzeko.

INBERTSIOA BERRESKURATZEA

Une jakin batean, oso errentagarritasun handia ikusten duenez, biktimak funtsak osorik edo partzialki berreskuratzea eskatzen du.

Orduan, beste ekarpen bat egin behar duela esaten dio beti operadoreak, edo, bestela, penalizazio bat ordaindu behar duela. Prozesu hori behin eta berriz egin ondoren, biktima ohartzen da iruzur egin diotela eta ez duela inbertsioa berreskuratuko.

DESKONEXIOA

Biktimak ordura arte iruzurgileekin erabilitako komunikazio-kanal guztiak erabiltzen ditu bere inbertsioa berreskuratzen saiatzeko, baina emaitzarik gabe, jakina.

Izan ere, azkenaldian, hauxe ari da ikusten zenbaitetan: komunikazioak eten eta gutxira, biktimek ustezko biktimen elkarte baten edo abokatu-bulego espezializatu baten telefono-deia jasotzen dute, maulan galdutako dirua berreskuratzea eskaintzeko. Dei horren atzean, erakunde kriminal bera dago, diru gehiago lortu nahi duena, zenbait aitzakia erabiltza: minutak, tasak edo muga-zergak ordaintzea eta abar.

GOGORATU:



- Ez instalatu aplikaziorik edo programarik aurrez jatorria egiaztatu gabe.
- Ez egin klik esteka susmagarrietan, ez partekatu zure pantaila, eta ez eman urruneko sarbidea inori.
- Salatu iruzur- edo maula-saiakera guztiak.
- **Online Bankan** sartzeko, erabili beti LABORAL Kutxaren **aplikazioa** edo **zure nabigatzaileko www.laboralkutxa.eus helbidea**.

Zerbaitek zalantza eragiten badizu, deitu TELEBANKAren 900 929 029 telefonora, edo gerturatu hurbilen duzun bulegora.